

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA

Oinarrizko errentagarritasuna

Bi lagun ezkondu zaizkidala esaten badizuet, norbaitek galde dezake: “Eta zer? Jende asko ezkontzen da”. Baina, gure bi lagun hauek 55 urte inguru dutela esan, eta hogeita bost urte elkarrekin bizitzen badaramatzatela, eta ezkontzetan sinesten ez duten ezkertiar horietakoak direla, bada, jakina, norbait horrek galde dezake: “Zertan ari dira horiek?”.

Horixe esan nien neuk ere: “Zertan ari zarete?”. Argumentua ekonomikoa dela erantzun zidaten. Ezkonduz gero —ez zuten lagunarteko bazkaririk ere egin—, itxuraz, dirulaguntzak jasotzen ei dira, errenta aitorpenean gehiago kobratzen ei da, eta bietako bat hilez gero ere, besteak herentzia osoa eta alarguntasun-pentsioa jasoko omen.

Gure usteko “ongizate” jendartetxo honi begira jarri naiz (oraindik kendu ez digutena-ri, esan nahi dut), eta honek izan duen garapen irrazionalaz hausnartu. Esaterako, lehen-go bikoteetan, gizonak lan egiten zuenez, emakumea diru iturririk gabe gelditzen zen hau hiltzean. Horregatik, alarguntasun-pentsioak bazuen zentzurik. Gaur, biak lan egiten dutenean, ba al du zentzurik laguntza horrek?

Beste bat, erretiroa hartu duen nagusi bati, pensio txikia ematen diote, eta gero, trenean joateko tiketa merkeago jarri, telefonikako bonoak egokitzen, deiak merkeagoak izan ditzan, eta beste diru sarreraren bat lortuaz,



DANI BLANCO

seme alaben laguntzaz edo, konpontzen du arazoa.

Hirugarrena, ikasle bat unibertsitatara doanean, beka sistema zabala omen dago, garraioak ordaintzeko batez ere, baina giza-gaixoak benetan nahiko lukeena, gurasoen etxetik irtetzea, eta lagun batekin bizi, ezin du egin.

Bukatzeko, lanik gabe dagoen bati, dagokiona bukatzen zaionean, dirulaguntza txikiago bat ematen diote, baina lor ditzake etxea alokatzeko laguntza, alokairu horiek ordaintzekoa, edo oinarrizkoak diren baldintzak betetzeko laguntzak.

Beste mila laguntza dauzkagu udal eta aldundietan ere, bai hortzak konpontzeko, bai ikasketak egiteko, bai etxean nagusiak zaintzearen. Batzuek —“argi” dabilzanak—, eskatzen dituzte; gehienok ez dugu jakin ere egiten. Nire galdera da, hau guztia ez litzateke konponduko, gizarte zerbitzu egokiak jartzeaz gain, hemen bizi garen gizon-emakume bakoitzari “oinarrizko soldata” —duina— emango balio estatuak, behar-ak ase ditzan? Ziur nago hainbeste laguntza eskas eta petatxu ematea baino, askoz ere merkeagoa, errentagarriagoa izango litzatekeela jendartearentzat, askoz ere sinpleagoa antolaketarako, eta askoz ere garbiagoa ziriirik ez sartzeko. Eta lasaigarriagoa guztiontzat. Hainbeste eskatzea ote al da? ■



Gure usteko

‘ongizate’

jendartetxo honi

begira jarri naiz,

eta honek izan

duen garapen

irrazionalaz

hausnartu



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



gora *Sautrela!* Horiek izan ziren Hasier Etxeberriak agurtzat bota zituen hondar hitzak, Ramon Saizarbitoria

parez pare zuela elkarrizketa mamitsu bezain atsegina burutu ondoren. Plazer bat adimenerako. *Sautrela* ez da hil, akabatu dute. Ez pelotazoka, ez dituzte behar izan lehergailua soberan duten fusilak desagertarazteko, aski izan dute zuen elikadura eskasa kentzea letren erresuma eraisteko, gosez hiltzen uzteko. Ez zuten *Sautrela* beharrezkoa erdaldun agintari arrotzek, ezagutzen ez gaituzten erorientzat gutxi batzuen apeta besterik ez zen *Sautrela*, ondorio

**Sautrela
hil da,**

deserosorik ekarriko ez liekeen erabakia hartzeko ez dute inongo lotsarik izan. Bazekiten jakin, ez zutela aurkako manifikaririk jasan behariko, ez zutela beren informatiboetan aldarri pankartaren atzeko mundu errabiatuaren desfilerik filmatu behariko, euskaldungoa jendetasunaren izenean guztia irensteko sortua dela. Ez diogu Sorozabalen musikaz minutuko isilunerik eskainiko, ezta ondorengo txalo zaparradarek joko. Euskara ez da UEFA, bere literatura ez da futbola, Alberto Surio ez da Rodolfo Ares, ETB ez da Ertzaintza, euskal idazleak ez dira Athletica. ■

